

206/2024 EBAZPENA, MARTXOAREN 21EKOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKU LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA, ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN/ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ, ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAKO OSASUN PUBLIKOKO ETA PAZIENTEAREN SEGURTASUNeko PROGRAMAK KOORDINATZEKO ZERBITZUAN, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN.

LANPOSTUA: EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO F.E. MEDIKUA (EZAGUTZA ESPEZIFIKOekin)

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko Programak Koordinatzeko Zerbitzua.

JARDUNALDIA: Zatitua (Vitoria-Gasteiz)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 2. HE, derrigortasun-datarik gabe.

BALDINTZAK:

Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza CV aplikazioan jasota badaude.

Eskatzaile guztientzat:

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatu titulua edo baliokidea izatea, eta lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen den edozein espezialitatekoa, edo Osasun Sistema Nazionalean medikuntza orokorreko medikuen funtzioei buruzkoa den ekainaren 4ko 853/1993 Errege Dekretuan ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplometako bat izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Eskatutako ezagutza espezifikoak

Eskatzaileek, halaber, Osasun Publikoari Aplikatutako Epidemiologia kategoriako ezagutza espezifikoak izan beharko dituzte. Hona hemen ezagutza horiek:

- Osasun publikoari buruzko ezagutza orokorrak
- Zaintza epidemiologikoa.
- Immunizazioak (txertaketa-kanpainak).
- Gaixotasun infekzioso sortu berriak eta suspertzen ari direnak prebenitzeko programak.
- Lehentasuneko patologien erregistroak, infekziosoak zein ez infekziosoak.
- Arriskuen analisia eta kudeaketa.

Ezagutza horiek, adibidez, epidemiologiarekin eta osasun publikoarekin lotutako maisutza edo graduen ziurtagirien bidez egiazta daitezke.

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila bereko edo txikiagoko beste kategoria batekoa izatea: Epidemiologia Klinikoko F. E. medikua.
- Epidemiologia Klinikoko F. E. mediku kategorian karrerako funtzionario edo estatutupeko langile finko edo lan-kontratu finkorik ez izatea, izendapen edo kontratu horrekin lotutako administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusiaz bestelako zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, etenik gabe urtebete baino gehiago eramatea egoera horretan.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa Osasun Sistema Nazionalako gainerako osasun-zerbitzuetan, Epidemiologia Klinikoko F. E. mediku kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA:

(agiri bidez egiaztatu beharko dira)

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 47,5 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendaritzara (Araba kalea 45) bidali beharko dute eskabidea, datu pertsonal guztiak eta Curriculum Vitae dokumentatuarekin batera (Osakidetzako CV aplikazioan baliozkotuta dutenak izan ezik).

Aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da. Giza Baliabideak Hautatu eta Hornitzeko zuzendariordea izango da batzordeburua, eta Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko Programetako Zerbitzuko buru Sanitarioa eta Epidemiologia Klinikoko F. E. Medikua eta Hornikuntza Zerbitzuko burua izango dira batzordekideak (azken hori idazkaria izango da).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Interesdunek garai eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Batzordeak. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 21a.



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA